

**LEHENDAKARITZA***Kanpo Harremanen eta Euskadi
Globalaren Idazkaritza Nagusia***PRESIDENCIA***Secretaría General de Acción
Exterior y Euskadi Global*

IV AKTA

Gaia: Idazkari/Administrazio-laguntzaile lanpostua betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Estatu Batuetako eta Kanadako Ordezkaritzan lan egiteko. Ezagutza probaren behin-betiko emaitzak.

Prozesua:

Euskadiren Estatu Batuetako eta Kanadako Ordezkaritzan Idazkari/Administrazio-laguntzaile bezala lan egiteko kontratazio prozesua da.

Prozesuak hiru fase ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta aukeraketa.
2. Ezagutza proba.
3. Elkarriketa pertsonala eta merituen balorazioa.

Aukeraketa-prozesuaren 2 eta 3 faseak deialdiaren oinarrietan azaldutako azterketaren bi faseei dagozkie (Deialdiaren 6.2 atalean): oposizioarena, bi ariketaz osatuta dagoena (ezagutza proba eta elkarriketa pertsonala) eta merituen balorazioa.

Deialdiaren oinarrien arabera, ezagutza proba fasean lanpostuari lotutako eginkizunekin zerikusi zuzena duen azterketa bat egingo da, zeina nahitaezkoa eta baztertzaila izango den. Gehienez ere 30 puntuko puntuazioa lortu ahal izango da, eta 15 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuta geratuko dira.

Erreklamazio eta zuzenketa epeen ostean, onartutako behin betiko 7 hautagaien artean, sei (6) aurkeztu ziren ezagutza proba egitera. Proba hau lanpostuaren eginkizunekin lotutako bi ariketekin osatuta dago.

Ezagutza proba modu telematikoan egin zen, Epaimahai kalifikatzaileak adostu eta onartutakoaren arabera, 2025ko apirilaren 16an, asteazkenean.

Ondoren, erreklamazio epea hasi zen, epe-muga apirilaren 28a, astelehena, izanik. Epe honetan, ez zen erreklamaziorik aurkeztu.



Beraz, ezagutza proba gainditu eta prozesuaren hurrengo fasera pasatzen diren behinbetiko hautagaien zerrenda hau da (puntuazioaren arabera ordenatuta):

Erregistro zenbakia	1.riketa	2.riketa	Guztira
AA-425-C	14.55	13.5	28.05
AA-425-G	13.95	13.5	27.45
AA-425-H	13.5	10.5	24.00
AA-425-F	12.00	12.00	24.00
AA-425-E	10.95	10.95	21.90
AA-425-D	9.45	10.05	19.50

Ezagutza proba gainditu dituzten hautagaiei aukeraketa-prozesuaren hirugarren fasean parte hartzera deituko zaie. Elkarizketa pertsonalaren eguna, ordua, formatua, baldintzak eta beharrezko argibideak modu indibidualean komunikatuko dira.

New Yorkeko hirian, 2025ko apirilaren 30ean.

Unai Telleria

Ordezkaria

Euskadiren Estatu Batuetako eta Kanadako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Mahaiburua

Nerea Arrieta

Arduradun Institutuzionala

Euskadiren Estatu Batuetako eta Kanadako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Idazkaria